

Zuberoaren Askapena

(Liberation of Soule)

Peillen Karrikaburu, Txomin
Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne
29-31, cours Comte de Cabarrus
64100 - Bayonne

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 179-191]

Azken gudate handian Zuberoa aliatu gudari, politikari eta judu iheslarientzat, España zehar, Ipar Afrikarako igarobide nagusietako bat izan zen. Hamabost zuberotar igaraille Alemaniako zigor zelaietan hil ziren eta hamabi etxeratzekoan. Zuberoaren askapena aldiz oso berezia izan zen: Zuberoako erresistentziak baitzuen herria aleman okupaziotik askatu, 207 aleman soldado atxilotuz eta arma asko hartuz. Mauleko hiria airez bonbardatua izan zen eta bere erresistentziarengatik frantses Gudu Gurutzea irabazi zuen.

Giltz-Hitzak: II Mundu Guda. Okupazio alemana Euskal Herrian. Maule. Iheslari. Erresistentzia. Aleman presoak.

Durante la guerra fue Zuberoa uno de los grandes pasos hacia España y Maghreb de fugitivos raciales, políticos, militares aliados. Quince pasadores murieron deportados en Alemania, doce al volver a casa. La liberación de Zuberoa fue un caso único: la resistencia local liberó al país de la ocupación alemana, capturando a 207 prisioneros, tomando una cantidad de armas. Mauleón, bombardeada por los alemanes, fue la única ciudad en recibir la Cruz de Guerra francesa por su resistencia.

Palabras Clave: II Guerra Mundial. Ocupación alemana en el País Vasco. Mauleón. Refugiado. Resistencia. Presos alemanes.

Durant la guerre la Soule fut un des grands passages pyrénéens vers l'Espagne, et le Maghreb de fugitifs raciaux, politiques, militaires alliés. Quinze passeurs moururent en déportation en Allemagne et douze à leur retour. La libération de la Soule fut un cas unique: ce fut la résistance locale qui libéra le pays de l'occupation allemande en capturant 207 prisonniers, en saisissant un armement considérable. Mauléon fut bombardée, et reçut la Croix de Guerre pour fait de résistance.

Mots Clés: II Guerre Mondiale. Occupation allemande dans le Pays Basque. Mauleón. Réfugié. Résistance. Prisonniers allemands.

Zuberoak nola bere burua askatu duen aztertu baino lehen bizpalaur aintzin-baldintza aipatu behar ditugu, gure herri horren askapena aski bereizita izan baita.

ASKAPENAREN, BALDINTZAK

Lehenik. Zuberoa, Euskal Herriko lurralde bakarra izan da Alemanek 1940.ko ekainan okupatu ez zutena. Zône libre, herrialde aske hori urtet'erdi gehiago biziko da alemanak ikusi gabe, eta orotara hogeitahamahiru hilabetez alemanpean egonen da. Züberoan ginaunden orduan, Pariserat ezin itzuliz. Goizero eskolan Marseillaise-a kantatzen genuen eta frantses bandera hedatzen; gazteak "gazte zelaietan" biltzen ziren armarik gabeko soldadoka baten egiteko.

Alemanak ez ikusiz, eta Parise okupatua zela jakin arren, aleman garaipenaren kaska ez genuen Zuberoan zuzenean hartu. Oraindikan jende batzuek uste zuten Verdun-eko garaileak, Pétain marexalak Frantzia askatuko zuela, Wehrmachtaren militar indar harrigarria ez baitzuten manex herrietan bezala Zuberoan ikusi.

Mila bederatzi ehunta berrogeita bateko Azaroaren 11.an aliatuak Ipar Afrikan sartu zirelarik, Zuberoan sartu ziren alemanak, gure lurraldeak bereizitasun hori galdurik ere, ondoko gertaeretan bere eragina izan du noski.

Bigarrenik Zuberoa XIX. mende erdialdeaz geroztik, erdizka ezker, erdizka eskuin bozemailea da, beraz "xiberotarrek" begi gaiztoz ikusiko dute aleman okupazionea, batikbat komunistek hasieran izan zituzten dudamudak, jadanik gaintituak baitziren. Horregatik politikak hautuen gatik hiru erresistentzia talde nagusi ezagutuko ditu Zuberoak Halaxen Basabürüko (Atarratzeko) erresistentziaren, A.S.aren buru Jaureguymediku erradikala izanena da eta Armée Secrète delako horrek sozialista asko bilduko du.

Zuberotar komunistak eta espagnol semeak, erdizka, berriz F.T.P. tan sartuko dira. Laurogei bat izango dira. Zuberotar espagnol artean Brigadas Internacionalesetan ibilitako sei lagun eta denen buru zen Lopez kapitaina nabarmendu ziren. Hirurgarren taldea, benetan eskuineko gaullista zirenenak Pauetik eta Mauletik ere bildu FFI.ak Corps-Franc Pommiès izenez ezagunak dira beste izenez Armée Nouvelle A.N eta O.R.A Organisation de la Résistance Armée.

Bestalde Zuberoan taldeek bezainbeste nabarmenduko jende batzuk: demokrazia kristiak baditu apez eta sotanagabeko nortasun handiko buruak, Zuberoaren askapenean egiteko handia izanen dutenak. Pettarreko (Mauleko) "Armée Secrète" edo Isilpeko armada gaullista antolatuko denean, de Jaureguiberry mediku, giristino, euskaltzale eta abertzalea buru jarriko dute. Jaun horrek jende ainitzen begirunea bildua zuen, batikbat mila bederatzi ehunta hogeita hamaseian, Espaniako gertaren ondotik, hegoaldeko errepublikanoen errezebitzea antolatu baitzuen eta frantses armadako aintzindaria izan baitzen.

Beste bi demo-kristau badira aipagarriak, eta Piarres Xarritonek nik baino luzekiago eginen duenaz gain, laburzki diot, bata Mauleko kolejoaren zuzendari izan zen Iturbide apezadugu hainbeste ingeles, kanadar, amerikar eta beste iheslariak gorde zituelako. Bestea Arrikar Atarratzeko apez nausia da, gero kalonje egina, Montevideon sortua, Atarratzeko kantonomenduko alemanen errendipena kausitu zuena.

Politika arrazoin horien gatik Nafarroa Beheran Ibarnegarayen itzalpetik nekez ateratzen zirelarik, ez zen, agian erresistentzia egitea hain erretxa izan eta hortakotz Zuberoan alemanen aldeko jende gutti izango da, nahiz Verduneko gertari ohi batzu Pétainzale agertu. Aisago zen Zuberoan ikustea nor zen etsaia eta nor adiskidea eta geroago sasi-gudarien "maquis"ak antolatzea.

Hirugarrenik. Geografia arrazoin eta abantaila bat badu Züberoak, ardatz bat baita, eta ez Nafarroa Behera bezala zatikatua. Alemanen ibar zoletako ibilerak erreztan bazituen ere, mendi bizkarretatik kurritzen diren artzainbide zaharrak, laister kurritzen zekiten, mendietako gerlariak.

Euskal Herri guztian bezala Züberoan, erresistentzia “muga igaranazle edo passeur delakoekin hasi zen; apur bat jadanik “lurralde askea” zenean, gero alemanen albisteen biltzeko sareak “les réseaux de renseignement” delakoak antolatatu zituzten, azkenik eta armak 1944.an ukan zituztenean, borroka armatura igaran. Ikusiko dugu Züberoak bi “maquis”, bi gerrilla talde armatu ezagutuko dituela.

Zuberoa askatu baino lehen ikusi behar dugu zer indar zeuden? Orotara 300 bat sasi gudari alde batetik eta 400 aleman besteetik. hobekienik armatuak kanoidunak, arma automatikodunak alemanak ziren, gero Corps-Franc Pommiers., frantses, eskuinekoa Giraud-k, “zerutik” aski ongi hornitu zuen armaz.

Gero nagusiki eta zuberotarrekin egina Armée Secrète delakoa. Azken horiek eragin handia izango dute nahiz ez zuten “zerutik” armarik bildu, nahiz eta apez batzuk egon haiekin.

Bestalde gerla ondoren, beren indarraren erakusteko, azken orduko sasigudari ainitz onartuko dute Sasi gudari edo “maquisard” horiek. A.S.koak Basabürüian alemanei hartu armekin eta behin Corps Franc Pommiers.koek galdutakoekin borrokatu ziren. F.T.P.ak eta berdin armaz urri zeuden

Noizpeinka ere, baina Zuberoaren askapenean sartuko ez direnak, gure mendien gaindi, igaro ziren Union Nacional de los Españoles, delako Guerrilleros españoles izenekoak, horiek gehiago ziren Gers eta Pyrénées garaietan, eta talde bat Bikuña donostiarraren agintepaan. Batzuk halere “maquis taldeetan” sartuko dira Hortaz badaki asko Gimenez de Aberasturi jaunak.

Baldintza guzti horiek Zuberoa bere buruaz bakarrik askatzera eramango dute. Sekulan ez dira baldintza horiek, behar bezala, aztertuak ez baloratuak izan.

Zer gertatu den jakiteko “askapenaren egunkari tekniko baten zatia argitaratu zuten duela hamar urte Armée Secrète koek, zatia zati da eta komentario gabekoa. Bestalde urte betez Mauleko aldizkari den Miroir de La Soule delakoak, gai hortaz artikulua argitaratu ditu lekukoek idatziak edota ikerlariak eginak. Gauzen zuzenean jartzeko, orde, eta eskerrak ematen diozkatedala, Iruriko Barbé –Labarthe jaunaren, Ligiko Allande Artigau Elixagaraien, Lixosen bizi den Joseph Seisedos-en, eta batikbat Antonio Soterasen lekukotasunak bildu ditut.

Armée Secrèteko norbaitek hemen hitzegitea nahiago nukean, baina, agian Eusko Ikaskuntza ez zela politika alderdi bat esplikatuko behar nien, eta Iparraldeko gure erakundearen lana lizateke bere burua hobeki ezagutaraztea, ezen askotan Züberoa, gogoz, Baionatik urrun delako. Beraz txosten honetan diren eskaziak nire gain hartzen ditut eta “paso” ez egiteko beste ikerlariak “inbidioa” igortzen diet, dokumentu segetuak hemendik goiti irekiko direnean, “eduki” zuzen eta argi apur bat eman dezaguten, ez higuinezko “hor dago” bat.

ASKAPENAREN GERTAERAK

Maulen eta Pettarrean

Maulen 1943.an hasita eta M.U.R. mouvement d’Union pour la Résistance delakoak Zuberoako askapenerako komite bat abiatu zuen. Talde hortan biltzen ziren muga igaranaz-

leak, baita **F.T.P.F.** ezkerrekoak, **Armée Secrète** eta **Corps-Franc Pommiers** ek beren ekin-tzak bateratzeko. Normandian 1944.ko ekainaren 6an aliatuak lurreraten direnean Corps-Franc Pommiers ek Giraud generalaren aldetik airez armak bildurik OspitalePean maquis bat, gerrilla bat eratu zuten. Ekainaren 25.ean lekuko askapen komiteak erabakitzen du Biarnora arma bila joatea eta Altzürükün bigarren maquis baten egitea.

Orduan, Armée secrèteko zuberotarrek galdetzen diete beste sasi gudariei, ez dezaten ezer egin Frantzian jazarpenaren dei orokorra egin arte, eta ez zezaten borrokarik eraman herrien erditan. Baina zuberotarrak ez ziren Corps-Franc Pommieseko buruzagiek, ezin egonez lehen hitzarmena hautsi egingo zuten eta uztailaren hamarrean aleman taldetxo bat atakatu.

Jadanik 600 alemanetatik gehienak Zuberoatik urruntzen zirelarik Ospitale Peko "Corps-Franc Pommies"ekoek azken hiru kamioiak eraso zituzten Mauleko aterabidean, bigarren hitzarmena hautsi, hain zuzen erabakia baitzen alemanak Nabarzi eta Lixoseko oihanean herrietatik urrun atakatuko zirela. Ez zen alemanik hil, baina kamioi bateko frantsesa naziek hil zuten. Kamioietatik atera aleman batzu saiatu ziren Mauleko postara joaitera laguntza eske, baina ordukotz kaleak sasi gudariz beteak ziren, FTP ek arrapatu zituzten: beren armak ez zituzten sasi gudariei eman nahi izan, Mauleko auzapez zen Allande Aguer-i baizik. Beste batzu Idiarteko oihanera ihes joan nahi izan ziren Bildozerako zubiaren ondoan, Armée Secrètekoek bidea moztu zieten orduan Etxebar jauregian sartu ziren berrogeita bat aleman armaz eta jateko ongi hornituak

Halere egun batez ezagutuko ditugun moldeetan, alemanak agorrilaren 11an errenditu ziren, soldado bezala eta Gurutze Gorriaren baldintzetan amor eman zuten eta mihise bat, maindire zuri bat hedatu ondoan, hironaka besoak airean jauregitik atera beren buruen emateko Armée Secrèteko eta FTP ko sasi gudariei. Trinketeetan sartu ziren, gero Garaibiko bainuetara eroan zituzten. Zauritu bat ondo artatu zuten eta orain Ekhi Eder hotela dagoen lekuan, Lafitteren klinikan, sartu. Gerla ekintza horrengatik Maulek Gerla Gurutzea erramuekin, medalla ukan zuen.

Gauzak, ordea, ez ziren hortan, bukatu eta ematen bada Agorrilaren 11 a Mauleko eta Pettareko askapen egun bezala, alemanak berriz itzuli ziren. Agorrilaren 12 an zazpi aleman kamioi Mintikilen gaindi Maulera zoatzen. Ospitale Peko FFlek ez zituzten pasatzera utzi Hegazkin batek Mintikile, Atarratze, Xarrikota pea bonbardatu zituen. Bospasei hil egin zituen Mauleko hiritarrak inguruko mendisketara joan ziren.

Agorrilaren 13 an arma guttiegi zeukaten Mintikile herrian zeuden sasi-gudariak gainditu zituzten alemanek. Sasi gudariak FTP koak Garaibira biltzen dira eta Naphalen jartzen da zuzendaritza, ia 800 aleman daudelako Maulen. De Jaureguiberry-ri alemanek eskatzen dute berrogeitalau gizonen gibel ematea. 14.ean Zuberotarrek ez dute amor ematen, dakitelako alemanak beren bizien bahi direla eta askatu bezain laister Maulek nazien mendekiuak jasan zitzakelako eta ezetz erantzuten dute 15.ean, alegia alemanek ez badute zibiletan mendekio-rik egiten presoak Gurutze Gorriaren legez tratatuak izango direla, bestelan ez.

Orduan egin zen sasi-gudari eta almeanen arteko argazki ospetsua. Eta zorionez! 16.an jakiten da aliatuak Provenzako itsas bazterrean lurreratu direla eta erresistentziari jazarpen orokorraren deia egin zaiola: Mauleko zortzi ehun alemanak hara joanki urruntzen dira.

Atarratze eta Basaburua

Zuberotar sasi gudariak Mauleko borrokaz aske, Atarratze inguratzen dute. Hama zortzian, han dauden 163 alemani aireko batek bost jaitsgailu botatzen die, baina erresistentziak

arrapatzen ditu. Agorrilaren 20.an alemanei beren buruak eman ditzaten eskatzen zaie. Haiek ezetz. Hogeitabian aleman kamioiak, berrogeitahamar oinezkoz inguratutik, heltzen dira Oloronetik, eta Montoriko patarrean erresistentziako indar guztiak baturik eta hobeki armaturik ez diete uzten pasatzera. Zuberotarrek zaurituak bildu zituzten. Arratsaldean Montoriko lepoan, eta hilharria ikusten da bide bazterrean, espagnol batek bizia galdu zuen kamioak granadaz lehertarazi nahi zituelarik.

Orduan gertatzen da Atarratzen ekintza eder bat, baina militarra ez zenaz geroz ez du herri horrek gerla medallarik izan, nahiz Maulek baino preso gehiago egin. Arricar kalonjearen beraren hitzak erabiliko ditugu euskaraz emanak, eta Miroir de la Soule delakoan aurten argitaratu ziren gisa. Osorik emango dut, negoziaketa baten gorabeheren ulertzeko txit jakin-garria delako

“Zein nahi gehiegikeriei edo okerketari, komentario ez zuzenei, buru egiteko idatziz eman nahi dut nola 135 alemanek beren burua eman zuten. Bereiziki zer egin nuen 1944.eko agorrilaren 20.an nere Bildozeke fededun izan zen Clement de Jaureguiberryk, ekintza hau eskaturik. Hemen egia baizik ez diodala idazten dut. Zergatik eta nola negoziaketa horren abiatzea onartu nuen.

“Mauleko aferaren ondotik eta hiriak hainbeste kalte eta bi hil jasanik, galdera bat zegoen. Nola hain azkarki armatuak ziren Alemanak, Atarratzen inguratuak zirenak, gure ibarretik joango ziren? Oinarrিতua ala ez, herrian arrenkura hori denetan zen. Agorrilaren 13-20eko asteazkenak ez zirenak zilegi uzten ginduzten pentsatzera erresistentziako batzuk Atarratze zuzenean atakatuko zutela.

“Ageri zen eraso zuhurgabea eta alferra zitekela. Herriaren erditan azkarki aterpeturik, eta armaz izigarriki hornituak zirelako alemanak eta Aloze herrian berdin, Iruriko herriraino errepidea baino gorago zirelako. Gai hortan aginterik gabe, iñoren manuz, baina pazientzia apur batek nire parropiari ekiditen ahal zion nahigabearen urrutzea. Ostiralean Jaun auzapeza otoizten dut, erasozeleentzat eta herriko jendeentzat arrisku handiegiko erasoari erresistentziako frantses indarrek uko egin dezaten.

“Erabilitako arrazoinak: Alemanak Atarratzen osoki setiatuak direla. Ezin ditzutela beren lagunak lagundu. Gurekin barneratuz beren buruak ezeztatzen dituzte, alanbrez eta barrikadaz hesituz, salbu eta Montori aldetik Oloronerako aterabide bat itxaroten dutelako. Azkenean ulertuko dute satartean hartuak direla.”

“Atarratzeko jaun mera nirekin bat zegoen, baina bere pertsonaren gatik –orduan jakin bainuen erresistentziakoa zela– ezin zuela urrats hori eman; joaiten erran zidan “zerbaiten egiten saia zaitez””.

“Baina nola eta noren izenean? Nire Atarratze erroter eginbidea bete nuen, igurikatzea erabaki nuen eta nire xedera heltzeko zein nahi aldiren igurikatzea: guk lekuan berean genekusan bezala hemendik goitik alferra izango zen eraso bat zedin.”

Agorrilaren 20.an Igandean

“Bezperetatik landa aita Millaceteekin Iruri aldera ibilaldi bat egin genuen Arren! ikusi behar genituen barrikadak! Herritik doidoiaz jalgitzen eta bezperan erresistentzian zer grado zeukan jakin –berririk, Clément de Jaureguiberryk igorri mezulari batek deitzen nau, Alemanek beren buruak eman zituzten alde ahaleginak egin netzan eta hortarako haien eskura hel nezan letra bat aleman komandantari.

“Nire adina berme eta parropiako erretore gisa ibiliko naiz –zuzenean aferan sar ez nintekelako– horregatik Jaureguiberry jauna esku har dezadan eskaten dit; bestalde Gurutze Gorriko ordezkariarik ez dago Atarratzen. Onartzen dut horrek nahi naizena egoten zilegitzen baidit: hots bakearen ministro. Ez al da ustegabeko parada nire parropitarren honkia egin dezadan?”

“Bostak irian Marmisollenean aurkezten naiz Atarratzeko goihen aitzindari “Komissar” arekin mintzatzeko. Biziki ongi konturatzen naiz nire egoteak sortu duela hunkidura txipi bat. Ez bainaute Komisar jaunaren gana uzten hersatzea, frantsesez ongi mintzatzeden Dultgen liotenanta, galdatzen dut. Soulé hotelera bila doatza. Heldu eta letra ematen diot. irakurtzen du eta gaineratzen diot oso serioa dela. Baker komissar jaunaren eta beste aitzindari baten bila igortzen du.

“Bakerek letra itzuleratzen du. Lehen oharra: eskutitza ez da sinatua! FTP etako M.B. k igorria ote naiz Ezen hamabost egun lehen, pertsona beraren gandik ukan baitu manu gaitz bat, zeinen gatik ez den oso pozik geratu. Nik baietz, sinatzailea frantses officier bat Legion d’Honneureko zaldun bat dela, nik ongi ezagutzen dudana eta bere moral onuneen gatik beti gora atxiki dudana.

“Nabaritzen dut orduan ixtanteko ekintza batez letra horren edukina sustengatu dezake-dala, baina arrangura naiz. Nola hartuko ditu, beren buruak emateko ondorioa izango duten, nire arrazoinak? Jaun horientzat ukaldi gogorra da. Elkarikusketara joaitan gogozkatu nuen, erraten ahal niona neurtu. Hiru ordu laurdenez, Dultgen jauna itzultzaile, bera hunki lezaketen ideia batzuk errepikatzen ditut.

“Hasteko ezagutzen dut –egia dena– Atarratzen izan duen ekitaldia beti duina, zuzena eta ixila izan dela. Baina elkarhizketak har lezakean bidez kezkatua, galdetzen diot ea nere hitzetan edo egintzetan zerbait baduenez erratekorik? Erantzuten dit: deusik ez. Orduan baketsuago nire argudioak garatzen dizkiot, beren burua eman behar dutelako ondorio latzera heltzeko:

a. Zuen buruzagiez ahaztuak izan zarete; haien gandik zuhurgabetasun handia izan da, duela 20 egun beste tropekin bildu behar zenuten. Errepikatzen dut: ibar zola honetan galdurik eta beste.

b. Hemen ez duzu egiazko soldadoei manatzen, baina aita familiako mugazainei gehienbat –batek, usu egiten zuten bezala, bere bost motikoen argazkia erakutsi zidan–. Ezin dezakezue oraingo gorabehera honetan bat hilarazi hemen, beste bi han. Aitortzen dut gerrilla ez dela egiazko gerla, baina badago eta zuentzat oso arriskutsua da. Orduan inardesten dit: Biziki ongi armatuak gara, goiz honetan bidean ezer topatu gabe Oloronetik joan gara. Ihardokitzen diot: goiz honetan egia da Oloroneraino helduko zinetela oztoporik gabe, baina frantses fusilen mehatxupean iragan zarete, negoziaketa bati buruz gindoazela, ez tiratzeko manua ukan zuten.

“Egiati nintzen, gezur hori entzuna nuen, eguneko bat gehiago, baina geroztik jakin dut erresistentziakoak ordu laurden bat beranduarekin, iganderako hitzartua zen, enboskada lekura iritsi zirela. Egia ote: oraino ere deus ez dakit.”

c. Behatzen zaidalako, indar biziagoz jarraitzen dut orduan. Ez zarete gehiago eraso gabe pasatuko, eskutitzak erraten dizu: setiatuak zarete; Mauleko erasoaldiaz geroztik maquis-a biziki garatu da, alde guztietatik frantsesak azkartzen dabilta. Espanto pixka bat egoki zen, baina benetan uste nuen frantsesak askoz gehiago eta armatua gabe zirela. Hainbeste jaitsgailu ekarpen izan zela aipatu baitziguten.

“Hirur ideia horien inguruan hitz berriak bilatzen saiatzen nintzen, leal eta zuzen nahiz gogor iduri zuen gizon horren gogoan eginahala egiten bainuen ideia horiek sar zitezen. Bere erantzunak maiz motzak Frantses hizkuntza ez zuen osoki beretu hona zer zion: moi très armé me défendre jusqu’à la mort (ni biziki armatua, borroka hiltzeraino). Gainera, hizketaren burutik buru, hasieran egin zidan argudiara itzultzen zen: alegia: lette pas signée (eskutitz sinatu gabe)! Egia zen, nere argudioarentzat ahulune bat bazegoela.

“Izenda al nezakean eskutitzaren idazlea? Bere senidekoak oraindik alemanpean zeuden ez al ziren erasiatuak izanen? Baina de Jaureguiberry jauna ezagutzen nuen gisa, hori ez zen ohargabekoa edo ahantzizkoa baizik. Ordu erdiz Baker jauna bere hortara itzultzen zelarik ofizier hori berbera ezagutzen nuela baiezten nion, bere prestutasunaz erantzuten nuen. Azkenean gizatiar eta frantses kutsuko zen eskutitzari indar gehiagoren emaitako erran nion: Jauna zure ohorearen gainean zin ote egin zenezake, aitzindari haren izena ematen badizut, zuretzat gordeko duzula, eta hartua baldin bada preso gisa tratatua izanen dela? Eskua altxatuz erantzuten dit: hitzematzen dut.

“Ordu berean gelan zeuden beste bi ofizierak hurbileko gelara doatz. Baker jauna zutitzen da, ni ere eta aleman belarri batentzat zailxka den izena ematen diot “ldatzi”, erraten dit. Egiten dut eta bere sakelan sartzen du papera (Baker jaunak hitzak atxiki du zen eta geroago oroit ez dudana batean erran dit “ moi pouvoir dire le nom maintenant” (nik izena erran, orain)?

“Gau berean Zalgizeko herrian gorabehera horren berri de Jaureguiberry-ri ematen nio-larik erran zidan. Ontsa egin duzu, ustegabetarik agitu zait. Gero Baker jaunari berari parka zezaion erran. Baina azkenean igande gaueko sei orenetan ondorioa ezezkoa da: moi me défendre jusqu’à la mort (ni hiltzeraino bihurtuko). Baker jaunari bere erantzuna eraman dezan eskatzen diot.

“Marmisollenetik jalgitzean bere izena ixilik eduki dezadan, ofizier bat, eskua emanez karrikan zuzentzen zait. Nik diot Komissar jauna gogorra da. Ez du ulertzen. Erantzuten dit “ Erraiozu frantses komandanteari bizpalaur egunez freno jar dezan, Komissararekin mintzatuko naizela”. Ondorio txarra zen, baina esperantza argiñoa bazen.

Ixtantean Zalgizera noa, eman didan egitekoaren ondorio, ia ezezkorrak, de Jaureguiberry jauna abisatzen dut. Eskatzen diot egun batzu patientzia harrerazi ditzan ahaleginen, ekintza arriskutsu eta alferra den eraso batetik Atarratze begira dezan. De Jaureguiberry jaunak bere potereen mugan dagoena egitea hitzematzen dit.

21.a astelehena

“Uste dut nire eginbidea dela eta Jaureguy auzapez jauna abisatzen dut. Baiesten nau. Montoriko enboskadaren berri jakiten dut alemanei bost zauritu kostatzen zaie. Baker jauna ulertzea doa eskutitzak aipatzen duen eta nik azpimarratu dudana setioa ez dela hitz hutsa.

22.a astelehena

“Ilgandean geroztik ikusi ez ditudanez alemanak nere egitekoa urrendua dela uste izateko arrazoin zerbait daukat, hala non nire apezetxearen inguruan sekulan ikusi ez nuen Baker jauna, side-car batean goiti heltzen dakusadan. Nire ikusi beharrez ote? Gogoko nuke. Apezetxearen ezkinān dagoela, nire otoitz liburua eskuan ateratzen naiz eta harahonaka

etxearen aurrean nabila. Orduan side-carera berriz igan zen Baker jauna gelditzen da eta nire buruz etortzen. Igande gauean eztabaidatzen genuen salan galdu nuen mahunga botoina ekartzen dit. Bai batzar bukaeran alferrik bilatu genuen. Eskerrak ematen dizkiot eta erraten diot:”jauna igande gauean frantses komandantea ikusi dut. zure erabakia deitoratzen du. Jakin duzua frantsesen eskuetan dela Oloron? Orain bakartiago zaude.

“Erantzuten dit sisi-frantsesean: moi, défendre Tardets contre communistes, à Pau communistes prendre armes à Compagnie armée secrète (nik Atarratze komunisten gandik zaintzen, Pauen komunistek hartzen armak ixilpeko armadaren konpaniari).

Agian bai, diot, baina frantsesen arteko auzia da. Eta bereala bezperan gogoratu zitzaidan argudioa zerbitzitzen diot: Jauna, hautatu behar duzu, edo bere kalitate ederren gatik ezagutzen dudan komandante bati zure burua eman edo bestelan B. jaunari. Baker jaunaren ihardokipena bortitza da: “B. jaunari sekulan ez”. Eskua ematen dit eta badoa. Ez ginen aitzinatuegiak baina hizketaren azken horrek iduri zuen hunki zuela.

“Egun berean hirurak et’erdietan Dultgen jauna apezetxera dator. Lauetan Komissar jaunak itxo egiten nauela. Minutu zenbait igurikatzen dugu eta guk itxaroten genuen erabakia hartua dela jakiten dut, baina ez dut oraindik jakinean izan behar. Lauetan Baker jaunari aurkezten naiz eta erraten dit: Zure etxean komandante frantsesa ikus al dezaket? Bai jauna, zer ordutan? Gaur hamaiketan.”

“Galdetzen diot bere postu guztiak abisa ditzan. Gaineratzen du, “Dultgen jaunarekin Atarratzeko jalgierara haren bila joanen zara”. Iruriko elizaren heipean hitzartzen dut; bostak irian de Jaureguiberry jauna dakusat. Gibelerakoan Irurira doan norbaitek hamaiketako hitzordua aurreratua dela erraten dit. Zazpitarako da. Ez dut ikusten aldaketa nondik datorren. erantzuten dut: goizegi da, ixilpean ibili behar dugu, erraiozu de Jaureguiberry jaunari zortzitarako Atarratzera sartzeko barrikadan egon dadin. Baker jaunari jakinarazten diot eta otoi postuak abisa ditzan eskatzen. Baker jaunak erraten dit: Dultgen jauna frantses komandantearen bila joango da eta zortzitarako zure etxean izango naiz.

“Denak tenorez hor gaude: Jaureguy jaun auzapeza de Jaureguiberry-ren eskaeraz, elkar aurkezten ditut, alkiak Jaun guzti horiei eskaintzen eta nire egitekoa bukatua denez geroz erretiratzeko xedea erakusten. De Jaureguiberry eta Jaureguy jaunek egotez erraten didate, eta orduan eta mainaz, jendetasunez eta zintasunez eraman ekitaldia ikusten dut.

“Hamaiketan Baker jaunak bere lagunen abisua galdatu nahi du. bere urrunaldia luzea da. Gauherdi et’erditan itzultzen da eta beste hitzordu bat eguneko hamaiketarako hartua da. Arma guztien ematea arratseko zortzietarako finkatua da. Orduan bakarrik errango dugu “Atarratze aske dago”.

“Gauaren minean, beren buruemateko idazki ofiziala Clément de Jaureguiberry jaunak idazkinaz eginarazi du. Hamaiketan agorrilaren 23an Baker jaunari eman zaio. Baker jaunak, beti duin, bere armaren begiratzeko baimena eskatu du. Eta de Jaureguiberry jaunak erran:”bai, zuk bakarrik”.

“Atarratzerentzat bukatua zen. Deo gratias! Hona literaturarik gabe 1944.ko agorrilaren 20 etik 23 ra Atarratzen gertatua, nik dakidanez.

Arricar, Atarratzeko apez nausia

Montevideon 1882.an jaioa, 1907.an apeztua, Maule ta Bildozeiko artzain Atarratzeko apez nausi 1962.ko otsailaren 21an kalonje hil zen Hura zela medio163 alemanek lau zauritu

izan ondoren, eta beste kalterik gabe beren buruak eman zituzten. Beren buruekin batean, hamalau mitraillosa, 15 FM, 9 pistola mitrailadora, 160 Mauser txispa, 15.000 esku granada.

Atarrantze hartu eta biharamonagoan 25.ean Zuberoako eliza zeinu guztiek askapena jo zuten eta Hilen Oroitarrian sasi gudariak Maulen bildu, Mauleko karriketan 200 aleman eskuak buruan ibilarazi ondoren.

Deportatuak. Zuberoa askatua baldin bazen beste zortzi hila bete gehiago igurikatu behar izan zuten zigor zelaietan giltzapean zeudenek eta denek ez zuten itzultzerik izan, hamabostek bizia Alemanian galdu zuten eta eta beste hamalau itzul eta ez asko bizitu. Azken horien artean gure gazte garaiko soinuak alaitu behar zituen Jose Seiseddos, "Txutxu" ospetsua oraindik Lexosen bizi da. Gehienak muga pasarazle saretakoak ziren, aleman patruillek arrapatuak edota herritarrek salatua.

Oraindik bizi diren batzu ezagunak dira Ozkaxeko lepoan Intxauspe ostatuko nausi zaharra eta Lixosen bizi den Jose Seiseddos mauletarra. Domenixe Etxegoihen, Ligi Etxebarnekoa Alemaniatik gure etxera heldu zenean, bere 35 kiloekin, zigor zelaietako bizitza kondatu zigun eta nola buruaren ez galtzeko adiskidetu zen Linschmann aleman demokrata deportatuarekin tratua egin zuten: Domenixek alemana ikasi zuen eta Linschmannek zibero-tarra. Linschmann gerla ondoren Heidelbergeko erakasle zen eta bere linguistika erakaspe-netan euskararen adibideak erabili

Beste deportatu mota bat izan zen. alemaniarra Bortxatzeko Lanerat, S.T.O.ra ez joiteko gazteek muga pasatzen zuten Ipar Afrikako armadetara joiteko. Bidean frankistek arrapa-tzen zituzten eta Miranda del Ebroko zigor zelaian sartzen, gero Espaniak gari zaku baten trukean edo beste modu baten trukean askatzen zituen. Italiako, Proventzako eta batzutan Normandiako armadetan milaka borrokatuko dira. Zuberoatik urrun Pierre Duleau Benta-berrykoa Mirandan gaixoturik, beste euskaldun lagunekin bereizirik Urberoagara bidali zituz-ten, eta zigor zelaieko goseteak pasatzeko, hango euskaldunek ongi hazi eta errezebitu, iheslari eta euskaldun zirelako. Eskerrak bizkaitar anaiei.

Gerla ondo

Jadanik erran dugu erresistentzia buru batzuen eraginez ez zela zuriketa itsusirik gertatu Pétainzale izan zirenen aurka, eta alemanekin kolaboratu zutenekin ere.

Soteras jaunak kondatu digunez, bazetorren erresistentziaren etxera Blasquiz aragone-sa H.H., Légion des Volontaires Français contre le bolchevisme-rako alemanekin kolaboratu zuena zekarrela, eta ziola " eman baimena ta honi bi tiro botatzen dizkio" eta goiko leihoan agertu zen Ixilpeko Armadako bigarren buruzagia Hegoburu eta esan zion" ez egin astoke-riarik!"

Andereek erresistentzia eduki zuten eragina ez da aski azpimarratu, mendian pasarazle izan ezik, non nahi zebiltzan, hala nola Lapeyre anderea Baionako geltokitik Hiribururaino, arrosa Eskapil Ligin eta zenbat andere aterpe ematen, gordeleku ematen. Askok erresisten-tziarentzat albisteak biltzen eta eramaten zituzten.

Merezi zutenak edo susmatuak zirenak epaitegietatik igaran ziren. Ezen ere hor bereizi behar baitziren joku doblea eroan zutenak. Adibidez, Altsazian ingelesek salbatu zuten ale-manpeko prefeta ezen joku doblez beren Intelligence Service ko albiste emaile onena bai-tzen. Bakarrik eta hau ez da zibilizazio marka bat, alemanekin ibili ziren andereak biloa mozturik, buru soildurik karriketan erabili zituztela.

Beste okerkeriarik ere gertatu zen ezen askapena baino lehen, muga pasarazle batzu erresistentziarekin bazebiltzan, beste pribatu asko diru trukean, eta ez merke. Ez baldin bazuten aski sos biltzen aitzinetik, zenbaitek iheslariak ebasten eta batzutan hiltzen zituzten. Zuberoan auzitegiratu zen bat, eta Oztibarren kantu bat omen dabil, haren urrieren eta diruen lapurtzeko aizkora ukaldika bere judu iheslaria hil zuen batez, Zuberoan herria askatu zen egunetik, gizon batzu bistatik galdu ziren eta beste behartsu batzuen semeak batbatean diruz beterik agertu. Jende kontrabando itsusi hori, ordea, ez da sekulan gelditu, horrek kanpotar langile klandestinoekin iraun du orainarte.

Agian askapena Maule aldean biktima guttiagorekin eta kalte apurrageokin joango zen sasi gudari batzuen eta FFI koen ezinegona ez bazen izan.

Anekdotarik ez omen da kondatu behar, baina zuberotar arintasunez kondatuko dut nola Leclerc-en tankeak Parisen sartu zirenean eta joan ginenean rue Mongera ikustera, mintzatu genuen lehen soldadoa mauletarra zela eta española. Geroztik jakin dut Parisen sartu ziren 400 lehen soldadoetan 200 español errepublikano zeudela.

Gerlaren ondotik Zuberoak hamar bat urte on ezagutu zituen, gero ekonomia krisia, laborarien hiritara joatea, euskararen gibelatzea, frantses patriaren zentzua galtzea. Bai Etxahun Iruri eta Alemanaian preso egon zirenek Frantziatz etsitu zuten eta bizitzen jarraiki Euskal Herria gogoan

Aski sofitüz nik hanixetan
desir nūkean hiltzea
ezpazüntüdan haiñ maite ükhen
oi! ama euskal herria.

Gure Zuberoa, orain erdi hustua, beste laurden batean eskeetik bizi dena, ideala galdurik dabil, eta erresistentziakoen seme ainitzek euskaldungoan beren ideala aurkitu dute. Alabaina denek jakin behar dute, beren zahar batzuk ez baziren Frantzia ahul baten alde borrokatu bazekitela noren aurka ari ziren, alegia aleman naziak eta diktatura zirela etsaiak.

Unetxo batez pentsa dezagun hil horiei eta batikbat gogoan dudan Paskual gipuzkoar muga pasarazlea, Ligiko Tinturabordan "lanean" ari zena, hots ehun jende baino gehiago Basabürüko mugatik pasarazi zituenak. Arrapatu zutenean bizirik ehortzi zutelako. Harek eta besteek minutu bat isilik egoteak merezi du.

Azkenik euskaldun historilariet oroitari nahi diet ez dezaten ahantz Jusef Egiategik duela berrehun eta hogeita bost urte idatzia, gogoan nuena hau euskaraz idaztean:

Legea eta kondaira arrotz hizkuntzan dirade ütsüari koloreak bezala

Badugu zer egina ikusten denean Eusko Ikaskuntzan euskal kondairaren % 95 gaztelaniaz dela Euskara gure latina bilakatzen ari zaigu, euskaltzaleak ere erdaraz pentsatzen hitzegiten eta idazten dugulako. Nork askatuko gaitu gaitz hortaz?

Résumé. La libération de la Soule

Pour des raisons intrinsèques et préalables la résistance et la libération en Soule présentent des caractères originaux, par rapport à celles du reste du Pays Basque.

A la différence des pays basques voisins la Soule vote plutôt à gauche depuis le XIXème siècle: aussi la majorité silencieuse du pays supporta mal l'occupation allemande. De plus, la droite souletine, plutôt démocrate chrétienne compta plusieurs acteurs importants de la libération de la Soule L'abbé manech Ithurbide s'illustra dans l'accueil des réfractaires,

évadés, aviateurs alliés, Piarres Xarriton vous en parlera. De même l'abbé Arricar doyen de Tardets obtint la reddition de 165 allemands, avec leur armement lourd. Quant au docteur de Jauréguiberry, il commanda le secteur de Mauléon de l'Armée Secrète puis l'ensemble des forces de la résistance en Basse-Soule. L'Ibarnegarayisme peu développé en Soule, n'entraîna pas la majorité des Souletins à la collaboration.

A la différence de la Basse-navarre la Soule présente une unité géographique plus grande, un axe nord-sud net, que certes les Allemands utilisèrent par le fond de la vallée, mais que les résistants parcoururent par les anciennes routes de bergers qui passent sur les crêtes.

A la différence des pays manechs et de la côte la Soule fut occupée tardivement. La Soule en effet, à la suite des accords d'armistice de Compiègne, était en zone libre. Nous avons de nombreux souvenirs de ce temps où nous fûmes bloqués en Soule et ne pouvant gagner le Paris familial. A l'école nous chantions la Marseillaise et levions les couleurs. Les jeunes allaient faire un service sans armes dans des camps de jeunesse vêtus d'uniformes vert pomme.

Certains pensaient que le gouvernement "libre" de Vichy serait capable soit de négocier le départ des Allemands de la moitié de la France qu'ils occupaient, soit de se battre, mais avec quelle armée? L'ignorance de la puissance militaire de la Wehrmacht ne dura pas longtemps, mais bien des gens crurent alors au maréchal Pétain, sauveur de Verdun. La Soule ne sera occupée par les Allemands qu'en novembre 1941 lorsque les alliés débarqueront en Provence, elle ne connaîtra que 33 mois d'occupation.

A la différence des pays manechs, en Soule les FTP (à Aussurucq) et les FFI s (à l'Hôpital Saint Blaise) s'organisèrent en maquis et comportèrent dans leurs rangs un grand nombre de républicains espagnols qui dans les autres parties du Pays Basque furent soit déportés, soit clandestins, soit passèrent dans les armées alliées.

Comme dans le reste du Pays Basque nord la résistance organisa d'abord des réseaux de passeurs de frontières pour les réfractaires du Service du Travail Obligatoire qui gagnaient les armées alliées à partir de 1943, ou pour l'évasion des aviateurs alliés abattus au cours de vols en France ou en Belgique, puis se furent lors de la construction du mur de l'Atlantique et des mouvements, notamment de troupes SS, le travail supplémentaire du renseignement, par les réseadont on vous a parlé, et dont parlerons les autres intervenants.

En Soule par contre, le pays va se libérer seul sans intervention alliée, mais avec quelques combats aussi bien en Haute-Soule (Montory) qu'à Mauléon ou Moncayolle, combats qui retardèrent le départ de certaines troupes allemandes vers la Provence.

Pour comprendre la libération de la Soule il convient de décrire la composition et les tactiques des trois mouvements de résistance. Les résistants de l'Armée Secrète, furent tous des Souletins qui voulaient combattre en évitant toutes représailles sur la population civile. Les FTP communistes souletins d'origine basque ou espagnole, également Parmi ces derniers sept anciens des Brigades Internationales dont leur capitaine Lopez. Ces deux forces fusionnèrent dans le maquis d'Aussurucq.

Par contre le Corps-Franc Pommiès composé de très jeunes français, étrangers au pays ne pensaient qu'à en découdre avec l'ennemi nazi, dans n'importe quelle condition Les deux premiers mouvements connaissaient mieux le terrain en pleine nature, l'autre voulait se battre même dans les localités et forçaient les autres à y participer. Le Corps-Franc Pommiès fut bien armés par le général Giraud et l'Armée Secrète et les FTP peu armés par le général De Gaulle Ils récupérèrent des armes sur les prisonniers et les parachutages allemands.

Un accord d'union fut cependant signé en juin 1944 dans le cadre du M.U.R. Mouvement uni de la Résistance; cet accord postula que l'on attendrait l'ordre général de soulèvement de la résistance, que l'on interviendrait ensemble, que l'on ne dresserait des embuscades que loin des localités.

Le 10 août 1944 les FFI impatients voyant partir les Allemands de Mauléon sans en avoir tués, tendirent une embuscade aux trois derniers camions. Heureusement ils firent 44 prisonniers grâce à l'intervention des autres résistants, prisonniers qui à, l'occasion, après le bombardement de Mauléon Tardets et Charritte de Bas servirent d'otages pour éviter à la capitale souletine de devenir un Oradour sur Glane. En effet 800 Allemands reviendront sur Mauléon et malgré une résistance dans le village de Moncayolle qui y fit quelques dégâts, repartirent sans leurs prisonniers. Contrairement à ce qui a été souvent écrit, Mauléon ne fut pas libéré le 11 août. Les Allemands ne quittèrent cette ville, que le 16 août 1944, rappelés vers le Sud-Est par un débarquement allié en Provence.

Mauléon débarrassée des troupes allemandes, les douaniers et soldats allemands de Haute Soule se replièrent sur Tardets et furent encerclés par les troupes, enfin unies, de la résistance. C'est grâce à l'intervention du Curé Doyen Arricar de Tardets et d'une négociation entre le Komissar allemand, le chef de l'Armée Secrète en Basse Soule, le docteur Clément de Jaureguiberry, le chef de l'Armée Secrète pour la Haute-Soule, Docteur Jauréguy maire de Tardets, que le 23 août 1944, les forces allemandes de Tardets se rendent.

Ce n'est que le 25 août que la Soule fêtera sa libération, pansera ses plaies et tentera de ne pas en ouvrir d'autres en évitant toute épuration sauvage des collaborateurs ou des pétainistes. Ne seront pas de la fête, les 15 déportés morts en camps de concentration et les douze qui viendront mourir au pays, libérés huit mois plus tard.

Quant aux évadés ou réfractaires du Service du Travail Obligatoire, incarcérés au camp de Miranda del Ebro –tel notre cousin Pierre Duleau Bentaberri échangé contre un sac de blé– ils passèrent d'abord en Afrique du Nord enfin allèrent combattre soit dans l'Armée d'Italie, dans celle de Provence ou dans la division Leclerc et remplirent leur devoir de combattant hors de la Soule.

Bien que la littérature sur ce thème se limite essentiellement à un petit livret de l'Armée Secrète qui valorise sa propre participation et critique celle des autres, nous pensons que les interventions un peu brutales du Corps Franc Pommiers ou les initiatives des F.T.P. eurent en Basse-Soule une importance en freinant le départ des troupes allemandes vers le front, en récupérant des prisonniers-otages, évitant les représailles. De même si le rôle de l'Armée Secrète est évident dans la reddition des Allemands à Tardets, l'encercllement et l'action de Montroy fut le fait de tous les résistants et favorisèrent cette heureuse issue.

Il y'eut quelques nuages dans cette période d'occupation et de libération. Durant la guerre des Souletins se firent quelque argent par la dénonciation des résistants aux Allemands. De même si de nombreux passeurs connus faisaient partie de la résistance tels Etxebarne, et les Eskapil, les Borddas, Arnaud Duleau Bentaberri notre cousin de Licq, Intxauspe du col d'Osquich, les frères Eiheramendi de Sainte-Engrâce etc..

Bien d'autres passeurs étaient qualifiés de syndiqués et faisaient payer assez cher le passage, d'autres enfin étaient de purs bandits, pratiquant vol, chantage et assassinats sur les fugitifs: En Basse-Navarre un tel bandit basque fut chansonné: il aurait assassiné et volé bijoux et argent du juif fugitif. Il y eut un procès après guerre pour un cas semblable en Basse-Soule

Il est difficile d'interroger les gens sur les passeurs et Roger Acheriteguy dans le Miroir de la Soule signalait en plus de ces cas, la disparition de certains passeurs à la libération, ou le fait que les enfants de pauvres passeurs se soient trouvés après la libération bien pourvus d'argent. Que dire du Marché noir qui se pratiqua en Soule durant la guerre: des jeunes filles placées en ville y gagnèrent leur dot ainsi.

Des femmes furent tondues et promenées en camions dans les villages pour avoir eu des relations amoureuses avec les Allemands, acte d'inadmissible barbarie. Par contre on oublia rapidement le rôle des femmes dans les trajets non montagnards des passeurs, dans l'accueil, et l'hébergement que pratiquèrent Madame Lapeyre entre Saint Pierre d'Irube et Bayonne et Arrosa Eskapil à Licq. Sans compter leur rôle dans l'obtention ou le transport de renseignements de la résistance.

Après la guerre, une époque de relative euphorie, de joie et de richesse régna en Soule durant les dix premières années qui suivirent la libération. Puis l'exode rural, le recul de la langue basque, l'érosion de l'idéal patriotique laïc français, assombrirent le tableau. Le prisonnier de guerre Etxahun de Trois-villes, déçu par la France découvrit l'idéal basque, et le glorifia dans son chant du retour:

Ayant assez souffert, fréquemment
 J'aurais désiré mourir
 Si je ne vous avais tant aimée
 ô Pays Basque, ma mère

L'état d'assistanat d'une partie des Souletins vivant de primes de subventions, de pensions, la réflexion sur la lutte anti-fasciste des Basques du Sud qui eux n'étaient pas encore libérés, aboutit chez de nombreux fils de résistants à rechercher parfois un idéal dans la cause basque.

Le silence relatif de certains résistants s'explique d'ailleurs par le fait que face à une France décadente, vaincue, ils ne savaient s'ils luttèrent pour elle, mais ils savaient par contre qu'ils se battaient contre les nazis allemands. Les combats de la libération, servirent pour le moins à ressouder la solidarité et le sentiment d'appartenance locale des Souletins et certains croient encore que la Soule est, avec les paroles d'Etxahun –Iruri un pays qui restera beau.

Bazter güzietako xokorik ederrenak
 De tous les pays le coin le plus beau.

J'ajouterais s'il ne connaît pas la guerre et la désertification.